



### III. eranskina: Oinarrizko gaitasunak

Oinarrizko Hezkuntzak, batik bat, goi-mailako ikasketak egiteko behar den prestakuntza emateari eta ikasleei ikasketak horiek egiteko behar diren ezagutzak emateari eman izan dio garrantzia, eta ez dio hainbeste erreparatu helduen bizitzarako garatu behar diren gaitasun pertsonalak, sozialak eta lan-arlokoak lantzeari eta bizitza osoan ikasteko behar diren oinarriak prestatzeari. Curriculumaren planteamenduak ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak ditu oinarri. Hori finkatuta, agerian jarri nahi da curriculumak, Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak betetzeko, goi-mailako ikasketak egiteko prestatu behar dituela ikasleak, baina, horrekin batera, behar bezala landu behar dituela hezkuntzaren gainerako alderdiak, pertsonak gizaki moduan garatzeko beharrezkoak direnak. Bestela esanda, curriculumak indartu egin behar du hezkuntzaren izaera hezitzailea, eta gauzak egiten jakiteko prestatu behar ditu ikasleak. Hezkuntzaren ikuspegi horren ildotik jaso dira curriculumean hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarrizko gaitasunak.

Gaitasunen Definizioa eta Hautaketa (DeSeCo) izeneko proiektuan, gaitasun kontzeptuaren definizioa ematen du Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGE). Hala, hauxe litzateke gaitasuna: eskakizun konplexuei erantzuteko eta askotariko lanak behar bezala egiteko ahalmena. Horrenbestez, gaitasunek beren barnean hartzen dituzte trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta gizarte-arloko nahiz portaerazko elementuak, eta pertsonak batera erabiltzen dituzte horiek guztiak, lanak modu eraginkorrean egiteko. Hauek dira gaitasunen ezaugarri nagusiak: “egiten jakitea” da berez, hau da, errealitatean aplikatzen den jakintza, askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera eman eta izaera integratzailea duena, jakintzak, prozedurak eta jarrerak biltzen baititu. Edukiak elkarri lotuta ulertzeko modu horrek aldatu egiten du kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiei buruz sarri erabili izan den ikuspegi zatitzailea.

Heziketa oso baterako erreferentziazko ardatzak dira hezkuntza-gaitasun orokorrak, bai oinarrizko hezkuntzarako, bai bizitza osoan zehar ikasteko prozesurako, eta hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, formaletan nahiz ez-formaletan. Hezkuntza-gaitasun orokor horiek ezin dira zuzenean ebaluatu; izan ere, hezkuntza-prozesu osoko plangintzaren eta haren gauzapeanaren loturazko eta bitartekaritzako lanak egiten dituzten aldagai konstanteak dira. Horien bidez, hezkuntza-planteamendu integrala egiten da, eta askotariko gaitasunak eskuratzeko modua dute ikasleek. Ikuspegi hori jorratzen du ELGE antolakundeko DeSeCo programaren planteamenduak, adierazten baitu badirela zenbait gaitasun giltzarri elkarri lotuta daudenak eta beharrezkoak direnak pertsonen garapenerako eta gizartearen funtzionamendua egokia izateko. Europar Batasunak izenpetutako tratatuek aldatu egin dituzte unibertsitate-curriculumak, eta aldaketa horien ondorioz, finkatu da, 2010 urterako, bizitza osorako gaitasunen eta ikaskuntzaren ildoari jarraituko diotela goi-mailako ikasketek, horiek izango baitira graduako eta graduondoko titulu berrien egiturazko ardatzak. Europako herrialde ugari antzeko planteamenduak egiten ari dira. Gurean egindako bi proposamenek ere —“Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumak” 2006koa eta “Euskal Herrirako Curriculumak”— ikuspegi hori hartu dute oinarritzat.

Europar Batasunak egindako proposamenak adierazten du hauek direla gaitasun giltzarri edo oinarrizkoak: “persona guztiek izan behar dituztenak giza errealizazioa eta garapen pertsonala lortzeko eta herritartasun aktiboa, laneratzea eta enplegua erdiesteko”. DeSeCo proiektuak adierazten duenez, gaitasun bat giltzarri edo oinarrizkotzat jotzeko, hiru baldintza hauek bete behar ditu: balio pertsonal edo sozial handiko emaitzak eskuratzeko lagundu behar du, testuinguru eta esparru adierazgarri ugarian aplikatzeko modukoa izan, eta aukera eman behar du pertsonak eskakizun konplexuak behar bezala bete ditzaten. Hau da, gaitasuna oinarrizkoa edo giltzarria izango da, baldin eta baliagarriak badira herritar guztientzat, alde batera utzita herritarren sexua, gizarte- eta kultura-maila eta familia-ingurunea.

Proposamen guztiak aintzat hartuta, hauxe jotzen du agiri honek oinarrizko gaitasuntzat: jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzera egokitua, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko. Hezkuntza-gaitasun orokorrak erreferentzia-ardatz nagusiak direla esan dugu; aldiz, ikasleek lortu beharreko helburuak

adierazten dituzte oinarrizko gaitasunek, giltzarriak eta beharrezkoak jotzen baitira ikasleentzat. Hala, ebaluazioaren erreferentzia dira oinarrizko gaitasunak.

Gaitasunen bidezko antolakuntza eginda, curriculumak nabarmendu egiten du garrantzi handikoa dela jakintzak egoera eta testuinguru zehatzetan erabiltzen jakitea. Esaterako, beharrezkoa da ikasleek aritmetika-arauen funtsa, historia-gertakarien bilakaera edo giza gorputzaren funtzionamendua zein den jakitea, baina ez jakite hutsagatik. Ikasleek horiek jakin behar dituzte, besteak beste, bizitza errealean aplikatzeko aritmetika-arauak, historiako gertakariei buruzko jakintza eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko erabiltzeko, eta giza gorputzaren funtzionamenduari buruzko jakintza ohitura osasungarriak hartzeko baliagarri izan dakien. Ez dira jakintza-arloak elkarrengandik bereizi behar; aitzitik, teorian jakin eta egiten jakin behar da, jakintza eta ekintza uztartu behar dira, eta teoria eta praktika batera landu. Gauzak behar bezala egiteko, batera eta modu koordinatuan erabili behar dira eginkizunak betetzeko behar diren kontzeptuzko ezagutzak edo jakintzak, jarduteko prozedurak, arauak edo jarraibideak eta motibaziozko jarrerak edo prestasunak.

Jakintzak erabiltzen jakin behar dela nabarmentzeak ez du esan nahi Oinarrizko Hezkuntzan lortu beharreko gaitasunak ikuspegi utilitarista batera mugatu behar direnik, ezta baztertu egin behar denik ere ikaskuntzak bertako nahiz munduko ondare kulturala berregiteko eta transmititzeko duen garrantzia. Geure izatearen parte dira geure jakintzak, bizipenak, sentipenak eta jarrerak, eta horiek guztiak funtsezkoak dira gure bizitzan, gu geu nolakoak garen eta gizartea eta izadia nolakoak diren ulertzen laguntzen baitigute. Jakintza horiek gure pentsamoldea eta izaera osatzen dute, eta hori guztia gauzak egiteko moduan islatzen da. Oinarrizko gaitasunen esparruak berdinak dira leku orotan, baina gaitasun horiek eskuratzea eta erabiltzea ezberdina da testuinguru zehatz bakoitzean.

Hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarrizko gaitasunak euskal curriculumean jasota eta horien integrazioa eginda, berariaz azpimarratu beharko lirateke ezinbestekotzat hartzen diren ikaskuntzak, planteamendu integratzaile bat eginez eta eskuratutako jakintzen aplikazioa xedetzat hartuta. Oinarrizko gaitasunak lantzeko, hezkuntza-sistemako ikasketei norabide jakin bat eman behar zaie, ikasleek jarduteko modu anitz balia ditzaten eta egoera berriei aurre egiteko ahalmena eskura dezaten. Oinarrizko Hezkuntzaren amaieran lortu beharko lirateke oinarrizko

gaitasunak, gizaki heldua izateko behar den neurrian. Gerora, gaitasun horiek garatu, mantendu eta eguneratu egin behar dira, bizitza osoko ikaskuntza baten zatitzat jota.

Europako Parlamentuak 2006ko irailaren 26an emandako gomendioari erantzunez, eta kontuan hartuz, batetik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak oinarrizko hezkuntzarako marko arautzaile berria ezarri duela, eta, bestetik, “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma” eta “Euskal Herrirako Curriculuma” izeneko proposamenak plazaratu direla, Euskal Autonomia Erkidegoak erabaki du Oinarrizko Hezkuntza taxutzen duten xedapen arauemaileetan hezkuntza-gaitasun orokorren eta oinarrizko gaitasunen esparru hauek txertatzea.

## HEZKUNTZA GAITASUN OROKORRAK:

- 1.- Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea, eta, zehazki, nor bere burua ezagutzen ikastea, norberaren buru-osasuna eta osasun fisikoa zaintzen ikastea eta ohitura osasuntsuak hartzea. Izadiak eta natura-baliabideez arduraz gozatzen ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroko belaunaldien ondarea diren aldetik.
- 2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea, eta informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea. Erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak eskuratzea, eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea, jakintza teorikoaren eta praktikoaren alorrek planteatzen dituzten arazoak identifikatzeko eta konpontzeko.
- 3.- Hizkuntza ofizialetan, eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean hitz egiten ikastea, eta, berariaz, komunikabideak eta informazioko eta komunikazioko teknologiak irizpide kritikoz erabiltzen eta interpretatzen ikastea. Irizpide hori bera jarraitu behar dute ikasleek hizkuntza artistikoarekin, musika-adierazpenarekin eta gorputzaren, plastikaren eta ikusizko alorraren adierazpenekin.
- 4.- Elkarrekin bizitzen ikastea, eta, berariaz, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarrizketara eta negoziatziora jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan

jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzen ikastea.

- 5.- Pertsona gisa garatzen ikastea, norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomia izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.
- 6.- Egiten eta ekiten ikastea, erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan.

## GINARRIZKO GAITASUNAK:

- 1.- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- 2.- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- 3.- Matematikarako gaitasuna.
- 4.- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- 5.- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- 6.- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- 7.- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- 8.- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun batzuek zehar-izaera dute; esaterako, ikasten ikasteko gaitasunak, hizkuntza-komunikazioko gaitasunak, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunak, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunak eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak. Beste gaitasun batzuek lotura zuzena dute curriculumeko arlo edo irakasgai jakinekin; esaterako, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunak, matematikarako gaitasunak eta giza eta arte-kulturarako gaitasunak. Hala ere, maila bereko garrantzia ematen zaie

oinarrizko gaitasun guztiei, horietako bakoitza lagungarri izan baitaiteke norberak arrakasta izateko, jakintzaren gizaratean. Gainera, aintzat hartu behar da gaitasun horiek guztiak elkarrekin lotuta daudela, eta arlo batean funtsezkoak diren alderdiak beste gaitasun baten lagungarri izan daitezkeela.

Oinarrizko gaitasunak deskribatu eta haien xedeak eta alderdiak lantzen ditu eranskin honek. Halaber, zenbait jarraibide ematen dira, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean lortu behar duten oinarrizko maila zehazteko, gaitasun bakoitzarekiko.

#### 1.- ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUN KULTURARAKO GAITASUNA

Ingurune fisikoarekiko harremani erreparatzen die gaitasun honek, eta, berariaz, ingurune fisikoaren natura-alderdiei eta gizakien ekintzaren ondoriozko alderdiei. Hala, gaitasun honek aukera ematen du gertakariak ulertzeko, gertakarien ondorioen aurreikuspenak egiteko, eta norberaren eta gainerako pertsonen eta izaki bizidunen baldintzak hobetzeko eta kontserbatzeko jarduerak egiteko. Azken finean, gaitasun honek askotariko trebetasunak izatea eskatzen du, egokitasunez, autonomiaz eta ekimenez jarduteko bizitzako eta jakintzako askotariko eremutan (osasuna, ekoizpen-jarduera, kontsumoa, zientzia, teknologia-prozesuak, etab.), eta mundua interpretatzeko. Horrek guztiak hau eskatzen du: gertakariak jakintza zientifikoaren eremu askoren ikuspegitik aztertzeke behar diren oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak aplikatzea.

Gaitasun honek honako xede hau du: alde batetik, bizitzaren eta giza jardueren euskarri den espazio fisikoa behar bezala hautematea, bai eskala handitan, bai gertuko ingurunean; eta bestetik, bere barnean hartzen ditu inguruko espazioarekiko harremanak, hala nola espazioan mugitzea eta espazioko objektuekin eta objektu horiekiko kokapenarekin lotutako arazoak konpontzea.

Espazio fisikoarekiko harremanen gaitasuna eskuratzeko, ikasleak berariaz jakin behar du zer-nolako eragina duen ingurunean pertsonen presentziak, asentamenduak eta jarduerak, pertsonak zer aldaketa egiten dituzten ingurunean, eta aldaketa horien ondorioz zer paisaia sortzen diren. Horrekin batera, ikasleak ikusi behar du garrantzi handikoa dela garapenaren onurak gizaki guztiengana helaraztea, natura-baliabideen kontserbazioa bermatzea, eta mundu mailako elkartasunari eta belaunaldien arteko elkartasunari eustea. Gaitasun honek, halaber, errealitatea eta informazio-

eta publizitate-mezuak ikuspegi kritikoz aztertzea eskatzen du, bai eta eguneroko bizitzan kontsumo arduratsuko ohiturak izatea ere.

Gaitasun honek giza gorputzaren, naturaren eta gizonek nahiz emakumeek naturarekin duten harremanaren ezagutza du abiapuntu, eta bide ematen du modu arrazionalan azaltzeko zer-nolako ondorioak dituzten askotariko bizimoduek; halaber, aukera ematen du bizitza fisiko eta intelektual osasungarria izateko, natura- eta gizarte-ingurune osasungarri batean. Gaitasun honetan, osasunaren bi dimentsio aintzatetsi behar dira, indibiduala eta kolektiboa, eta ardurazko eta errespetuzko jarrerak erakutsi behar dira norberarekiko eta gainerako pertsonetikiko.

Gaitasun honen bidez, galderak edo arazoak identifika daitezke eta frogetan oinarritutako konklusioak lortu, ingurune fisikoa ulertu eta hari buruzko erabakiak hartzeko, eta ulertze- eta erabakitze-prozesu berari jarraitzeko giza jarduerak ingurumenean, osasunean eta pertsonen bizi-kalitatean eragiten dituzten aldaketekiko. Gaitasuna eskuratuta, jakintza eta prozedura horiek aplikatu behar dira, pertsonen, erakundeen eta ingurumenaren eskaera edo premia hautemandako arazoei konponbidea emateko.

Gaitasun hau dela eta, nozio eta kontzeptu zientifiko eta teknikoak eta oinarrizko teoria zientifiko batzuk ulertu eta aplikatu behar dira. Horrek esan nahi du pixkanaka eskuratu eta hobetu behar dela analisi sistematikoaren eta ikerketa zientifikoaren jarrerak eta prozesuak martxan jartzeko trebetasuna. Ildo horretatik, hauek egin behar dira: problema garrantzitsuak identifikatu eta planteatu; obserbazio zuzenak eta zeharkakoak egin, haiei dagozkien teoria- edo interpretazio-markoarekin bat etorriz; galderak egin; informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa lokalizatu, lortu, aztertu eta adierazi; konponbide-saioak edo hipotesiak planteatu eta kontrastatu; konplexutasun-maila txiki nahiz handiko iragarpenak eta inferentziak egin; eta galdera zientifikoei erantzuteko eta testuinguru anitzetan (akademikoan, pertsonalean eta sozialean) konklusioak lortzeko, interpretatzeko, ebaluatzeko eta komunikatzeko jakintza eskuragarria, teorikoa eta enpirikoa identifikatu. Halaber, ikerketa-jardueraren izaera, indarguneak eta mugak ezagutu behar dira, gizarteak historian zehar eraikitako jakintza den aldetik.

Gaitasun honek, gainera, irtenbide teknikoak planifikatzeko eta erabiltzeko trebetasunak dakartza, eguneroko bizitzako eta lan-munduko premiei erantzuteko, ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioei jarraituz.



Gaitasun honen barruan sartzen dira ahalmen fisikoak, pertzepziozkoak eta motorrak garatzeko trebetasunak, osasunarekiko ohitura prebentiboak eta aringarriak eskuratzea, eta norberaren gorputzaren eta sexualitatearen integrazioa eta onarpena.

Osasuna zaintzeko prebentzio-ohiturak hartu behar dira, besteak beste: higiene-neurriak; elikadura osasuntsua eta orekatua; ariketa fisikoa eta kirola egitea, egoneko bizitza eta gizentasuna prebenitzeko; atsedena- eta erlaxazio-ohiturak hartzea; gorputz-jarrera egokiak hartzea, esaterako, ibiltzean, zamak garraiatzean eta esertzean; substantzia kaltegarriak kontsumitzeari, aisia arduragabeari eta arriskuko jokabideei uko egitea; tentsio handiak eta lan-eritmo estres-eragileak ekiditea, etab. Jarduera horiek guztiek optimizatu egiten dute pertsonen osasuna eta bizi-kalitatea, eta, ondorioz, gizabanakoen ongizate fisikorako eta psikologikorako bidea erakusten dute. Norberaren gorputza arduraz onartuta, gozatzeko, gainerako pertsonekin komunikatzeko eta gizarte- eta natura-ingurunearekin harremanak izateko bidea irekitzen da; hau da, nor bere buruarekin ongi sentitzeko bidea. Pertsonen hilkortasunaz jabetzea da norberaren gorputza onartzearen beste alderdi bat.

Norberaren gorputza onartzeko, hura ezagutu eta haren itxura fisikoa onartu behar da eta adinarekin lotutako gorputz-aldaketak barneratu behar dira. Halaber, gorputzaren funtzionamendua eta haren adierazpen sexualak eta afektiboak balioetsi behar dira, gainerako gizakiekiko eta ingurunearekiko komunikazio- eta harreman-bitarteko gisa. Pertsonen itxura fisikoan dauden aldeak modu positiboan balioestea da gorputza onartzea, bai eta modekin eta gizarte-estereotipoekin kritikoa izatea ere, baldin eta horiek eredu kaltegarriak edo baztertzailerak inposatzen badituzte.

Jolastea, kirola egitea eta ariketa fisikoa egitea komunitatean integratzeko eta sozializatzeko bideak dira, eta pertsonen garapen anatomiko, fisiko eta psikologikoari laguntzen diote.

Laburbilduz, hauek dira gaitasunaren funtsezko alderdiak: pentsamendu zientifikoa eta teknikoa garatzea eta hura erabiltzea jasotzen den informazioa interpretatzeko, aurreikuspenak egiteko eta erabakiak ekimenez eta autonomia pertsonalez hartzeko; izan ere, eremu zientifiko eta teknologikoko aurrerapenek eragin erabakigarria dute pertsonen, gizartearen eta naturaren bizi-baldintzetan.

Halaber, gaitasun hau dela eta, jakin behar da jakintza zientifikoa beste jakintza modu batzuetatik bereizten eta balioesten, eta zientziari eta



teknologiaren garapenari lotutako balio eta irizpide etikoak erabiltzen.

Zerrendatutako trebetasun eta abileziekin bat etorritik, oinarrizko gaitasun honen ezaugarri dira: natura-baliabideen erabilera arduratsua; ingurumenaren zaintza; kontsumo-jarduera arrazional eta arduratsuak; eta, pertsonen bizi-kalitatearen elementu giltzarriak diren aldetik, norberaren eta gizartearen osasunaren zaintza.

## 2.- IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA

Ikasten ikasteak esan nahi du norberak eskuratuak dituela jada zenbait trebetasun, ikasteari ekiteko eta gero eta eraginkortasun eta autonomia handiagoz ikasten jarraitzeko, betiere, ikaste-jarduera hori norberaren helburuei eta premiei egokitzen bada.

Gaitasun honek bi alderdi nagusi ditu. Batetik, norberaren gaitasunen (intelektualak, emozionalak eta fisikoak) kontzientzia hartzean eta gaitasun horiek garatzeko prozesuaz eta estrategiez jabetzean datza gaitasuna, bai eta nork bere buruari laguntzeko egin daitezkeen jardueraz eta beste pertsona edo baliabide batzuen laguntzaz egin daitezkeenez ohartzea ere. Bestetik, gaitasun honek eskatzen du norbera gauzak egiteko gai dela sentitzea, eta horrek bultzatu egiten ditu motibazioa, nork bere buruan duen konfiantza eta ikasteko grina.

Ikasleak jakin egin behar du zer dakien, zer ikasi behar duen, nola ikasten den, eta nola kudeatzen eta kontrolatzen diren modu eraginkorren ikaskuntza-prozesuak. Hala, ikasleak gai izan behar du azken prozesu horiek optimizatzeko eta helburu pertsonalak lortzeko erabiltzeko. Ikasleak jakin egin behar dute zer ahalmen eta gabezia dituzten, eta lehenez baliatzen jakin behar dute; halaber, bigarrenak gainditzeko motibazioa eta borondatea izan behar dute, eta helburu hori lortzeko aurreikuspena. Hala, ikasleak gero eta segurtasun handiagoa izan behar du bere buruan, ikasketa-erroka berriei ekiteko.

Bi alderdi horiek lantzeko, ikasleak jakin egin behar du zer ahalmen izan behar dituen gauza ikasteko; besteak beste, arreta, kontzentrazioa, memoria, hizkuntza ulertzeko eta adierazteko ahalmena, eta helburuak lortzeko motibazioa. Horiek horrela, ikasleak ahalik eta etekin handiena eta pertsonalizatua atera behar die ahalmen horiei, askotariko estrategiez eta teknikez baliatuta. Teknika eta estrategia horien artean hauek ditugu: ikastekoak; gertakariak eta harremanak

sistematikoki behatzekoak eta erregistratzekoak; lankidetzakoak eta proiektuen bidezkoak; arazoak konpontzekoak; jarduerak eta denbora modu efektiboan planifikatzeko eta antolatzeakoak. Halaber, bere ahalmenei etekina ateratzeko, informazioa lortu, aukeratu eta tratatzeko baliabideak (teknologikoak barne) eta iturriak baliatu behar ditu ikasleak.

Gaitasunak eskatzen du nork bere buruari galderak egiteko jakin-mina izatea, eta egoera edo arazoei konponbidea emateko dauden aukerak identifikatzea eta baliatzea, eta, berariaz, eskura dagoen informazioa aintzat hartuta, askotariko estrategiak eta metodoak erabiltzea erabakiak modu arrazionallean eta ikuspegi kritikoz hartzeko.

Gaitasuna eskuratuta, halaber, informazioa banaka edo elkarlanean lortzeko trebetasuna izan behar du ikasleak, eta, bereziki, informazio hori norberarentzako jakintza bihurtzeko trebetasuna. Hala, ikasleak harremanetan jarri eta osatu egin behar du eskuratutako informazio berria, bai aurrez duen informazioarekin, bai bere bizipen pertsonalekin; eta jakin egin behar du jakintza eta gaitasun berriak antzekotasunak dituzten egoeretan eta askotariko testuingurutan aplikatzen.

Gaitasun hau eskuratzeko, epe labur, ertain eta luzeko helburuak jarri eta horiek bete behar dira, eta pixkanaka eta ikuspegi errealista batetik handitu ikaskuntza-helburuak.

Ikasteko irmotasuna izatea eskatzen du gaitasun honek, eta ezaugarri hori norberaren bizitza eta bizitza soziala aberasten duen elementutzat jo behar du ikasleak. Ondorioz, ikasteko esfortzuak merezi duela pentsatu behar du ikasleak. Nork bere burua ebaluatzeko eta erregulatzeko gaitasuna izan behar du ikasleak, erantzukizun eta konpromiso pertsonala izan, esfortzua administratzen jakin, eta akatsak onartu behar ditu, eta gainerako pertsonengandik eta pertsonekin ikasten jakin behar du.

Laburbilduz, ikasleak ikasten ikas dezan, norberaren gaitasunen eta jakintzen jabetza, kudeaketa eta kontrola izan behar du, bere burua pertsona trebe eta eraginkortzat hartuz; orobat, ikasleak pentsamendu estrategikoa izan behar du, lankidetzan jarduteko ahalmena eta bere burua ebaluatzeko; eta lan intelektuala egiteko teknikak eskuratu behar ditu. Hori guztia ikasketa-esperientzia kontziente eta atseginen bidez garatzen da, bai banaka, bai taldean.

### 3.- MATEMATIKARAKO GAITASUNA

Gaitasun hau zenbakiak, horien oinarrizko eragiketak, matematika-sinboloak eta matematikako adierazpen eta arrazoitze moduak erabiltzeko eta lotzeko trebetasuna da, bai informazioa sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko alderdi kuantitatibo eta espazialei buruzko jakintza handitzeko, bai eguneroko bizitzako eta laneko arazoak konpontzeko.

Informazioak, datuak eta arrazoibideak argi eta zehaztasunez interpretatzeko eta adierazteko trebetasuna da matematikarako gaitasunaren adierazpenetako bat da, eta horrek handitu egiten du bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko aukera, bai eskolan, bai eskolatik kanpo. Horrez gain, gizartean parte-hartze eraginkorra izateko aukerak bultzatzen ditu.

Halaber, matematika-gaitasunak oinarrizko matematika-elementuak (askotariko zenbakiak, neurriak, sinboloak, elementu geometrikoak, etab.) ezagutzea eta horiek eguneroko bizitzako egoera erreal edo simulatuetan erabiltzea dakar, bai eta arrazoitze-prozesuak abiaraztea ere, arazoak konpontzeko edo informazioa lortzeko.

Prozesu horiez baliatuz, egoera eta testuinguru anitzetan aplikatu daitezkeen informazioak, arrazoibideen jarraipena egin eta ideia nagusiak identifikatu, eta arrazoibideen eta informazioen logika eta balioa zenbatetsi eta epaitu.

Horrenbestez, pentsamendu-prozesu jakin batzuk (esaterako, indukzioa eta dedukzioa) jarraitzeko eta kalkulu-algoritmo eta logika-elementu zenbait aplikatzeko trebetasuna izatea eskatzen du matematikarako gaitasunak. Gaitasun hori izanda, arrazoibideen baliozkotasuna identifikatzeko eta arrazoibide baliozkoetatik lortutako emaitzen ziurtasun-maila baliosteko gai izango da ikaslea.

Matematikarako gaitasunean, elementu edo euskarri matematikoak dituzten informazioekiko eta egoerekiko (problema, ezezagunak, etab.) jarrera ona eta gero eta segurtasun eta konfiantza handiagoa izan behar da, eta elementu horiek erabili egin behar dira egoerak hala eskatzen badu; beraz, ziurtasunarekiko begirunea eta atsegina izan behar da, eta hura bilatu, arrazoimenaren bidez.

Matematikarako gaitasuna eskuratu dela jakingo dugu, baldin eta matematika-elementuak eta -arrazoibideak behar bezala erabiltzen badira,

eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko. Horrenbestez, matematikarako gaitasunaren adierazle dira hauek: egoera horiek identifikatzea, problemak ebazteko estrategiak aplikatzea, eta, eskura dagoen informazioa oinarri hartuta, errealitatea kalkulatzeko, adierazteko eta interpretatzeko teknika egokiak aukeratzea. Finean, matematika-jarduerak askotariko testuingurutan erabiltzeko aukera erreal izatea da gaitasunaren funtsa. Hori dela eta, derrigorrezko hezkuntzan matematikarako gaitasuna lortu dela esango dugu, baldin eta ikasleek naturaltasunez eta askotariko egoeratan aplikatzen badituzte beren matematika-jakintzak; besteak beste, matematikaz besteko jakintza-arloetan eta eguneroko bizitzako egoeretan.

Oinarrizko Hezkuntza amaitzean matematikarako gaitasuna behar bezala garatua izango dute ikasleek, baldin eta gai badira eremu pertsonalean eta sozialean matematika-elementuak eta -arrazoibideak erabiltzeko, eta, horien bidez, informazioa interpretatzeko eta sortzeko, eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko.

Laburbilduz, matematikaren bidez arazoitzeko, arazoibide matematikoak ulertzeko eta matematika-hizkuntzan adierazteko eta komunikatzeko trebetasunak eta jarrerak aplikatzea da matematikarako gaitasuna izatea, betiere, laguntza-tresna egokiak erabiltzen badira, eta matematika-jakintza beste jakintza mota batzuekin batera erabiltzen bada, eguneroko bizitzan ager daitezkeen askotariko egoera konplexuei irtenbide egokia emateko.

#### 4.- HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

Gaitasun honen funtsa hizkuntza erabiltzea da, ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitzeo eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa ere.

Gaitasun honi dagozkion jakintzek, trebetasunek eta jarrerek bide ematen dute pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak adierazteko, elkarrizketan aritzeko eta iritzi kritikoak eta etikoak osatzeko, ideiak sortzeko, jakintza egituratzeko, diskurtsoari eta norberaren ekintzei eta egitekoei koherentzia eta kohesioa emateko, erabakiak hartzeko eta ahozko nahiz idatzizko entzunaldiez, irakurraldiez nahiz mintzaldiez gozatzeko. Horrek guztiak, gainera, autoestimua eta norberarenganako konfiantza handitzen laguntzen du.

Komunikatzeko eta elkarrizketan aritzeko, harreman eta lotura eraikitzaileak sortu behar dira pertsonekin eta ingurunearekin; orobat, kultura berrietara gerturatzea eskatzen du jarduera horrek, eta, kultura horiek ezagutu ahala, handitu egiten da kultura horiekiko ardura eta errespetua. Nabarmena da, horrenbestez, bizikidetzarako eta gatazkak konpontzeko ahalmenarekin erabat loturik dagoela hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Entzuteko, azalpenak emateko eta elkarrizketan aritzeko gai izanda, hitzezko harreman nagusien jabe egiten gara, era bateko eta besteko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko mezuak adierazteko eta ulertzeko gaitasuna eskuratzen dugu, eta komunikazioa testuinguru bakoitzera egokitzeko ahalmena geureganatzen dugu. Hala, komunikazio-egoera bakoitzerako egokiak diren ahozko testuak sortzeko, behar bezala eta eraginkortasunez erabili behar dira hizkuntzakoak diren eta ez diren kodeak eta trebetasunak, eta komunikaziorako harremanek egoera bakoitzean bete beharreko arauak.

Irakurritz eta idatziz, indartu egiten dira informazioa bilatzeko, biltzeko eta prozesatzeko trebetasunak; hala, jarduera horiek lagundu egiten dute askotariko asmo komunikatibo edo sorkuntzakoak dituzten testuak behar bezala ulertzen, sortzen eta erabiltzen. Irakurketak erraztu egiten du idatzizko hizkuntza erabiltzeko kodea interpretatzeko eta ulertzeko prozesua, eta, gainera, plazer-, jakituria- eta fantasia-iturri da, eta beste ingurune, hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen du. Horrek denak, komunikaziorako gaitasuna mantentzen eta hobetzen laguntzen du.

Hizkuntza-komunikazioko ekintzetako (elkarrizketa, irakurketa, idazketa, etab.) xedeak eta helburuak hautatzeko eta aplikatzeko trebetasuna zuzenean dago lotuta gaitasun honen alderdi nagusiekin; esaterako, norberaren errepresentazio mentalak egitearekin, errealitatea interpretatu eta ulertzearekin eta norberaren jakintzak eta ekintzak koherentziaz antolatu eta erregulatzearekin.

Mezuak ulertzea eta komunikatzen jakitea jakintza praktikoak dira, baina hizkuntzari eta haren erabilera-arauei buruzko ezagutza erreflexiboa eduki behar dute oinarrian, eta horrek berriaz eskatzen du hizkuntza behaketarako eta azterketarako objektutzat hartzen jakitea. Era askotariko gizarte- eta kultura-testuinguruetako komunikazio-egoerei egokiak zaizkien diskurtsoak adierazteko eta interpretatzeko, beharrezkoa da hizkuntza-sistemaren funtzionamendu-arauak eta hizkuntza-interakzio egokiak izateko estrategiak ezagutzea eta behar bezala aplikatzea.

Gaitasun hori eskuratzeko, hauek ezagutu behar dira: hizkuntzarekin lotutako gizarte-ohiturak, hizkuntzaren kultura-balio eta -alderdiak, eta hizkuntzak testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera har ditzakeen aldaerak. Ahalmen hauek ere izan behar dira: beste pertsona batzuen egoeran jartzeko ahalmen enpatikoa; norberarenak ez bezalako iritziak sentikortasunez eta ikuspegi kritikoz irakurtzeko, entzuteko, aztertzeko eta aintzat hartzeko ahalmena; norberaren ideiak eta emozioak funtsean eta formaz egoki adierazteko ahalmena, eta kritika eraikitzaileak onartzeko eta egiteko ahalmena.

Atzerriko hizkuntzen komunikazio-gaitasunari dagozkion jakintza eta formalizazioa —batik bat, idatzizkoa— bestelako maila batean kokatzen dira, eta hizkuntza horietakoren batean komunikatzeko ahalmena izatea eskatzen dute. Hizkuntza horiek jakinda, aberastu egiten dira gizarte-harremanak eta norberak berezkoak ez dituen testuinguruetan mugitzeko ahalmena eskuratzen da. Atzerriko ikasleen atzerri-hizkuntzen kasuan ere, hizkuntza horiei eutsita, bultzatu eta aberastu egiten da hizkuntza anitzeko inguruneen dibertsitatea. Horrekin batera, jokabide horiek eskura jartzen dituzte informazio-, komunikazio- eta ikasketa-iturri ugari eta askotarikoak.

Laburbilduz, derrigorrezko eskolaldiaren amaieran hizkuntzarako gaitasuna behar bezala eskuratua izateko, ahozko eta idatzizko hizkuntza menderatu behar da era bateko eta besteko testuinguruetan, eta atzerriko, gutxienez, hizkuntza baten erabilera funtzionala izan.

## 5.- INFORMAZIOA TRATATZEKO ETA TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEKO GAITASUNA

Informazioabilatzean, lortzean, prozesatzean, komunikatzean eta informazio hori jakitate bilakatzean datza gaitasun hau. Gaitasun honek eskatutako trebetasunen artean daude, besteak beste, informazioa eskuratzekoa, hura tratatu eta informazio-euskarrietara transmititzekoa, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko erabiltzekoa.

Informazioa bilatzea, hautatzea, erregistratzea, tratatzea eta aztertzea eskatzen du gaitasun honek, eta, horren barruan, teknika eta estrategia egokiak erabiltzea informazio hori eskuratzeko, betiere, informazio-iturriari eta erabilitako informazio-euskarriari erreparatuta (ahozkoa, inprimatua,

ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia). Oinarrizko hizkuntza espezifikoak menderatu behar dira (testuak, zenbakiak, ikonoak, ikusizko hizkuntza, grafikoak eta soinuak), eta hizkuntza horiek deskodifikatzeko eta transferitzeko jarraibideen berri izan; eta baita mota askotariko egoera eta testuinguruetan aplikatzen jakin, hala informazio-motak, informazio-iturriak, informazioak ematen dituen aukerak eta informazioaren kokapena, nola informazioaren adierazpenerako erabiltzen diren hizkuntzak eta euskarriak ere.

Informazioa eskura izateak ez dakar, berez, jakintza. Informazioa jakintza bihurtzeko, arrazoitze-lan bat egin behar da, informazio hori antolatu, lotu, aztertu eta laburtzeko, eta informazioaren gaineko inferentzia eta dedukzio sinpleak nahiz konplexuak egiteko; hau da, informazioa ulertu egin behar da, eta norberak aurrez dituen jakintza-eskemetan sartu. Eta komunikatu egin behar da eskuratutako informazioa eta jakintza, adierazpen-baliabideak erabiliz. Baliabide horiek, hizkuntza eta teknika espezifikoak biltzeaz gainera, informazioaren eta komunikazioaren teknologien aukerak baliatu behar dituzte.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak behar bezala erabiliko baditu ikasleak lan intelektuala egiteko, teknologia horiek erabili behar ditu informazioa eta jakintza transmititzeko eta sortzeko.

Teknologia horiek informazioa eta jakintza sortzeko erabiliko ditu ikasleak, esaterako, prozesu matematiko, fisiko, sozial, ekonomiko edo artistikoen ereduak lantzeko erabiltzen baditu. Gaitasun hori eskuratuta, hauek egiteko gai izango da ikaslea: informazio ugari eta konplexua behar bezala prozesatzeko eta kudeatzeko; errealitatean sortutako arazoak konpontzeko; erabakiak hartzeko; lankidetzaz-esparruetan lan egiteko, eta, komunikazio-inguruneak zabalduz, ikaskuntza-komunitate formaletan eta ez-formaletan parte hartzeko; eta ekoizpen arduratsuak eta sortzaileak egiteko.

Teknologia digitala erabiltzean, etekin osoa atera behar zaie informazioko eta komunikazioko teknologiei, eta, horretarako, sistema teknologikoen izaera eta funtzionamendua ulertu egi behar da, eta teknologia horien aldaketak pertsonengan eta lan- eta gizarte-esparruan duten eragina atzitu.

Ikasleek softwareko eta hardwareko ohiko arazoak identifikatzeko eta konpontzeko estrategiak erabili behar dituzte. Halaber, teknologia digitala erabiltzean, informazioko eta komunikazioko teknologiek ematen duten



informazioa aprobetxatu eta ikuspegi kritikoz aztertu behar da, norberak lan autonomoa eginez eta beste pertsona batzuekin lan eginez, alderdi sinkronikoan nahiz diakronikoan. Horrela jokaturik, ingurune fisikoei eta sozialei buruzko ezagutza eta harremana handitu egiten da. Teknologia horiek informazioa antolatzeke eta prozesatzeko erabili behar dira, eta aurretik ezarritako helburuak betetzeko baliatu, ikasketen, lanaren eta aisialdiaren esparruan.

Finean, hau eskatzen du teknologia digitala erabiltzeak: eskura dauden baliabide teknologikoak ohikotasunez erabiltzea, eguneroko bizitzako arazoak modu eraginkorrean konpontzeko. Gaitasun horrek, halaber, informazio-iturri berriak eta berrikuntza teknologikoak sortu ahala ebaluatzeke eta hautatzeko aukera ematen du, egiteko edo helburu espezifikoak betetzeko ematen dituzten aukerei erreparatuta.

Laburbilduz, teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna eta informazio tratatzeko gaitasuna eskuratzeko, baldintza hauek bete behar ditu ikasleak: autonomiaz, eraginkortasunez, arduraz, ikuspegi kritikoz eta zuhertasunez hautatu, tratatu eta erabili behar ditu informazioa, informazio-iturriak eta baliabide teknologikoak; eskura duen informazioa jarrera kritikoz eta zuhertasunez baloratu behar du, eta, beharrezkoa bada, egiaztatu egin behar du informazio hori; eta, halaber, bete egin behar ditu gizarteak informazioko eta informazio-iturrietako euskarrien erabilerarako adostu dituen jokabide-arauak.

## 6.- GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA

Gaitasun honek aukera emango dio ikasleari zer gizarte-errealitate bizi duen ulertzeko, lankidetzaz jarduerak egiteko, bizikidetzaz lantzeko, eta herritartasun demokratikoa gizarte plural batean erabiltzeko. Halaber, gizartea hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzeko aukera emango dio. Gaitasun honek askotariko jakintzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu, beharrezkoak direnak ikasleak gizartean parte har dezan, erabakiak har ditzan, egoera jakinetan nola jokatu hauta dezan eta egindako hautuen ardura har dezan.

Gaitasunaren funtsa, oro har, gizartean parte hartzea da, eta, horretarako, gizartearen antolaketari eta bilakaerari buruzko ezagutzak erabiltzea eta sistema demokratikoaren ezaugarriari eta balioei buruzko jakintzez baliatzea; era berean, ikasleek judizio moralak erabili behar dituzte aukeraketak egiteko eta erabakiak hartzeko, eta gogoz eta arduraz erabili eta bete behar dituzte herritartasunari dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

Munduaren egoera historikoa eta soziala eta munduaren bilakaera, lorpenak eta arazoak ulertzen laguntzen du gaitasun honek. Errealitatea ikuspegi kritiko batetik ulertzeko, esperientzia eta jakintza izan eta errealitate hori aztertzeko ikuspegi bat baino gehiago daudela jakin behar du ikasleak. Gaitasun hau lantzean, askotariko kausen eta sistemen azterketara jo behar da gertakari eta arazo sozialak eta historikoak juzgatzeko eta haiei buruzko hausnarketa orokorra eta kritikoa egiteko; halaber, arrazoiketa kritikoak egin behar dira, gertakari errealetan oinarrituak, eta elkarrizketara jo behar da, guztien artean hobetzeko errealitatea ulertzeko era.

Gaitasun hau eskuratuta, egungo gizarteen ezaugarriak ulertu behar ditu ikasleak, gero eta aniztasun handigoa dutela gizarteek, eta bilakaera-prozesuak bizi dituztela. Horrez gain, munduan zeharreko kulturek gizateriaren bilakaerari eta aurrerabideari egin dioten ekarpena balioetsi behar du ikasleak, eta gizarteko partaide dela sentitu behar du. Azken finean, munduko herritarra dela sentitu behar du, eta sentimendu horrek bat etorri behar du bertakoa izatearen sentimenduarekin.

Halaber, gaitasun honek bere barnean hartzen ditu zenbait gizarte-trebetasun, aukera ematen dutenak balioen eta interesen gatazkak bizikidetzaren parte direla jakiteko, gatazka horiek jarrera eraikitzailez konpontzeko eta erabakiak autonomiaz hartzeko. Azken erabaki horiek hartzeko, gizarteari buruzko jakintza erabili eta balio-eskala bat baliatu behar da. Balio-eskala horrek hausnarketa kritikoaren eta elkarrizketaren bidez egina izan behar du, lurralde, herrialde edo komunitate bakoitzeko oinarrizko kultura-ereduak aintzat hartuta.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren alderdi etikoa eskuratzeko, inguruneko balioez jabetu behar du ikasleak, horiek ebaluatu eta modu eraginkorrean eta arrazionalen berreraiki. Lan horren bidez, balio-sistema propio bat sortu behar du, eta horiekiko koherentziaz jokatu, erabaki bat hartzeko edo gatazka bati aurre egiteko. Beraz, ikasleak ulertu behar du jarrera pertsonal guztiak ez direla etikoak, baldin eta jarrera horiek ez badituzte printzipio eta balio unibertsalak ere barnean hartzen (esaterako, Giza Eskubideen Deklarazioan jasotakoak).

Horrenbestez, hauek dira gaitasun honek dituen trebetasunetako batzuk: nork bere burua ezagutzea eta balioestea; gauzak testuinguru anitzetan komunikatzen jakitea; norberaren ideiak adieraztea eta gainerako pertsonenak entzutea; gainerako pertsonen lekuan jartzeko gai izatea eta solaskidearen

ikuspuntua ulertzea, norberarenarekin bat ez etorri arren; eta erabakiak hartzea komunitate-bizitzako esparru guztietan, norberaren interesak eta taldearenak batera baloratuz. Horrekin batera, ikasleek pertsonen arteko diferentziak balioetsi eta kolektibo guztiek eskubide berdinak dituztela aintzatetsi behar dute, eta bereziki onartu emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna. Ikasleek elkarrizketara eta negoziatziora jo behar dute, adostasunetara iritsi eta gatazkak konpontzeko, bai esparru pertsonalean, bai sozialean.

Gaitasun honen ezaugarria da herritar aktiboa izatea eta herritartasuna modu integratzailean lantzea; hala, ikasleak ezagutu eta ulertu egin behar ditu estatu eta gizarte demokratikoen oinarrizko balioak, funtsezko alderdiak eta antolamendu eta funtzionamendu moduak. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eskuratuta, ikasleak gai izan behar du modu kritikoan aztertzeko zenbait kontzeptu —besteak beste, demokrazia, askatasuna, elkartasuna, arduen banaketa, parte-hartzea eta herritartasuna—, eta arreta berezia jartzeko nazioarteko deklarazioetan, Estatutuko eta autonomia-erkidegoko funtsezko arauetan eta finkatutako eskubide eta betebeharreri eta erakundeek horiek aplikatzeko erakusten duten jokabideari. Horrekin batera, ikaslearen jokabideak bat etorri behar du balio demokratikoekin, eta, horretarako, zenbait trebetasun eskuratu behar ditu; esaterako, norberaren pentsamenduez, balioez, sentimenduez eta ekintzez jabetzeko trebetasuna eta horiek kontrolatu eta erregulatzekoak.

Herritartasunak dakartzan aukerak erabiltzeko, bizitza zibilean gogoz eta osotasunez parte hartzeko trebetasunak eskuratu behar dira. Horiek horrela, hau eskatzen du herritartasunak: bizikidetzaren arauak balio demokratikoetan eraikitzea, onartzea eta betetzea; herritarren eskubideak, askatasunak, ardurak eta betebeharrak erabiltzea; eta gainerako pertsonen eskubideak defendatzea.

Laburbilduz, hauek dira gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren ezaugarri nagusiak: gizarte-errealitatea ulertzea; balio eta jardunbide demokratikoetan oinarritutako irizpide etikoak erabiltzea bizikidetzari eta gatazkei aurre egiteko; eta herritartasunaren jarduera-esparrua irizpide propioz erabiltzea, hala, bakea eta demokrazia eraikitzen laguntzeko, eta herritarren eskubide eta betebeharrak jarrera eraikitzailez, elkartasunez eta arduraz erabiltzeko eta betetzeko.

## 7.- GIZA ETA ARTE KULTURARAKO GAITASUNA

Giza eta arte-kulturarako gaitasunak berekin dakar kultura- eta arte-adierazpenak ezagutzeko, ulertzeko, balioesteko eta ikuspegi kritiko

baloratzeko gaitasuna. Ikasleak gozatzeko eta bere burua aberasteko erabili behar ditu adierazpen horiek, eta herrien ondare-elementutzat jo.

Kultura oro har, eta, berariaz, artea balioesteko, haien adierazpenak norberarengana ekartzeko trebetasunak eta jarrerak izan behar dira, eta, horrez gain, pentsatzeko, hautemateko, komunikatzeko eta sentitzeko trebetasunak eta sen estetikoa izan behar da, haiek ulertu eta balioesteko eta haiekin gozatzeko eta hunkituta sentitzeko.

Gaitasun hau lantzeko, pentsamendu konbergenteak eta dibergenteak erabili behar dira, giza eta arte-kulturarako gaitasunak hau eskatzen baitu: norberaren eta beste pertsona batzuen ideiak eta sentimenduak berregitea; gauzak ulertzeko eta adierazteko iturriak, moduak eta bideak aurkitzea; eta emaitza pertsonalak nahiz akademikoak lortzeko prozesuak planifikatzea, ebaluatzea eta doitzea. Horrenbestez, gaitasun honek adierazteko eta komunikatzeko bide emango dio ikasleari, eta artearen eta kulturaren errealitateak eta ekoizpenak hautemateko, ulertzeko eta horiekin aberasteko bide.

Ekimena, irudimena eta sormena baliatu behar ditu ikasleak, arte-kodeen bidez adierazteko. Halaber, kultura- eta arte-jarduerek, sarritan, talde-lana egitea eskatzen dutenez, lankidetzarako trebetasunak izan behar ditu ikasleak, jarduera horien xedeko azken emaitza lortzen lagun dezan. Trebetasun horiek eskuratuz gero, ikaslea ondo jabetuko da gainerako pertsonen ekimenak eta ekarpenak babesteak eta balioesteak duen garrantziaz.

Arterako gaitasunak arte-hizkuntzen teknika, baliabide eta usadio nagusiei buruzko oinarrizko jakintza izatea eskatzen du, eta kultura-ondareko obra eta adierazpen nagusiak ezagutzea. Horrez gainera, ikasleak identifikatu egin behar du zer harreman dauden arte- eta kultura-adierazpen horien eta gizartearen (adierazpenaren garai historikoko pentsaeraren eta baliabide teknikoaren) artean, eta arte- eta kultura-adierazpenen eta horien egileen edo egile taldeen artean. Horrenbestez, ikasleak jakin behar du zer bilakaera izan duten gizakiaren pentsamoldeek, ildo estetikoek, modek eta gustuek, eta, horrekin batera, aintzat hartu behar du zer errepresentazio-, adierazpen- eta komunikazio-funtzio bete izan duten eta betetzen duten alderdi estetikoek pertsonen eta gizartearen eguneroko bizitzan.

Sormena balioesteko jarrera izatea eskatzen du gaitasun honek, eta, zehazki, musikaren, literaturaren, ikus- eta eszena-artearen eta bestelako arte-bitartekoen bidez nahiz herri-artearen bitartez adierazitako ideiek, bizipenek eta sentimenduek

azaleratutako sormen inplizitua balioestekoa. Halaber, hauek balioestea eskatzen du: adierazpen-askatasuna, kultura-aniztasunerako eskubidea, kulturen arteko elkarrizketa eta arte-esperientzia konpartituak.

Laburbilduz, gaitasun honek trebetasun multzo bat izatea eskatzen du, eta, trebetasun horien artean daude artea eta bestelako kultura-adierazpenak balioetsi eta horiez gozatzeko trebetasunak, eta, arte-adierazpeneko zenbait baliabide erabilia, arte-sorkuntza propioak egitekoa. Baita ere, kultura- eta arte-adierazpenen oinarrizko ezagutza izan behar da, pentsamendu dibergenteko eta elkarlaneko trebetasunak aplikatu behar dira, jarrera irekia, begirunezkoa eta kritikoa izan behar da arte- eta kultura-adierazpenekiko, norberaren ahalmen estetiko eta sortzailea lantzeko gogoia eta borondatea izan, eta interesa adierazi bizitza kulturean parte hartzeko eta norberaren komunitateko nahiz beste komunitate batzuetako kultura- eta arte-ondarea kontserbatzen laguntzeko.

## 8.- NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO GAITASUNA

Gaitasun honek eskatzen du, alde batetik, elkarrekin lotutako zenbait balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardura; irmotasuna; nor bere burua ezagutzea eta autoestimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea.

Bestalde, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak barnean hartzen du hautuak irizpide propioei jarraituz egiteko gaitasuna, proiektuak sortzeko gaitasuna, eta norberak egindako hautuak eta norberaren planak, proiektu indibidualetan nahiz talde-proiektuetan jasoak, aurrera eramateko ekintzak egiteko gaitasuna izatea. Hori guztia arduraz egin behar du ikasleak, bai bizitza pertsonalean, sozialean nahiz lan-esparruan.

Hau da, ideiak ekintza bihurtzean datza; hots, helburuak finkatzea eta proiektuak planifikatzea eta aurrera eramatea. Horrenbestez, gaitasun honetan, aurretiazko planteamenduak berregin eta ideia berriak sortu behar dira, eta, finean, konponbideak aurkitu eta aplikatu. Orobat, aukerak eta mugak aztertu behar dira, proiektuen garapen faseak ezagutu, erabakiak hartu, ekin, egindakoa ebaluatu eta nor bere burua ebaluatu, konklusioak atera eta hobetzeko aukerak balioztatu.

Hala, erronken eta aukeren ikuspegi estrategikoa izatea eskatzen du, ikuspegi horren bidez, helburuak identifikatzeko eta lortzeko bidea errazteko eta abiatutako lanak arrakastaz bukatzeko motibazioari eusteko, anbizio pertsonal, akademiko eta profesional sanoak izanda. Ikasleak, gainera, gai izan behar du ikasketetarako, lanerako eta aisiarako eskaintzak aztertu eta bere gaitasun, asmo eta proiektu pertsonaletara moldatzeko.

Halaber, ikasleak jarrera baikorra izan behar du aldaketa eta berrikuntzekiko; beraz, planteamendu malguak egin behar ditu, eta aldaketak aukera moduan ikusi, aldaketa horietara ikuspegi kritikoz eta molde eraikitzailez egokitu, eta arazoei aurre egin eta konponbideak topatu, abiatutako bizi-proiektu guztietan.

Norberaren autonomiak eta ekimenak, sarri, beste pertsona batzuen parte-hartzea eskatzen duenez, harremanetarako, lankidetzarako eta talde-lanerako gizarte-trebetasunak izatea eskatzen du gaitasun honek, hala nola gainerako pertsonen lekuan jartzen jakitea, gainerako pertsonen ideiak balioestea, elkarrizketatzea eta negoziatzea. Asertibitatea ere landu behar du ikasleak, norberak hartutako erabakiak behar bezala jakinarazteko eta lankidetzaz-geroan eta malgutasunez lan egiteko.

Gaitasunaren gizarte-alderdi horretan, proiektuen lidergoarekin lotutako zenbait trebetasun eta jarrera izan behar ditu ikasleak, hala nola bere buruan konfiantza izatea, enpatia, hobetzeko grina, elkarrizketatzeko eta lankidetzan aritzeko trebetasuna, denbora eta egitekoak antolatzea, eskubideak baieztatzea eta defendatzeko ahalmena, eta arriskuak hartzea.

Ikasleak gaitasun pertsonalak eta gizarte-gaitasunak bereganatuko baditu, bere burua ezagutu behar du eta harreman egokiak ezarri behar ditu bere buruarekin. Xede hori lortzeko, hau egin behar da: emozioak kontrolatu, eta emozio horien intentsitateari, ezegokitasunari edo kalte egiteko ahalmenari erreparatuta, norberarentzat eta gainerako pertsonentzat kaltegarriak diren gogo-aldarteak identifikatu eta menderatu; norberaren jokabideak antolatu, ahaleginari eutsi eta norberak asmo dituen helburuak betetzean lortzen den asebetetzea atzeratu; autoestimua positiboa eta errealista lortu, nor bere buruan konfiantza izanda eta gainerako pertsonen norbera balioesten dutela sentituz; autonomiaz jokatu, erabaki pertsonalak hartuz eta norberak ezarritako helburuak eraginkortasunez eta norberaren printzipio moralei jarraituz betetzeko bitartekoak jarri; eta gainerako pertsonekin lan egin, helburu komunak lortzeko.

Laburbilduz, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna izateko, ikasleak sormenez, konfiantzaz, arduraz eta sen kritikoz sortu, abian jarri, garatu eta ebaluatu behar ditu ekintza edo proiektu indibidualak nahiz kolektiboak.

## CURRICULUMA GAITASUNEN INGURUAN ANTOLATZEA

Curriculum honek berriaz jasotzen ditu lehen aldiz Europar Batasunak finkatutako gaitasun oinarrizkoak edo giltzarriak, irizpide argi eta komunak ezartzen dituztenak. Curriculum gaitasunen inguruan egituratzeko aukeraz baliatuta, curriculumaren planteamendua aurrekoa baino egokiagoa da, Oinarrizko Hezkuntzako hezkuntza-helburuak lortzeko. Hezkuntza hobetzeko xedea du berrikuntza horrek, eta curriculumaren plangintzari, aplikazioari eta ebaluazioari eragiten dio. Hala, curriculum berri hau aplikatzeko, aldaketa handiak egin behar dira, bai metodologian, bai antolakuntzan, bai irakasleen pentsaeran eta prestakuntzan, bai eta beste alderdi askotan ere.

Curriculum antolatzeko modu berri horrek ez du alde batera uzten jakintza-arloetako banaketa, irakasleek orain arte erabilitakoa. Era berean, nabarmendu behar da gaitasunak garatzean, curriculumean jasotako jakintza-arloen eta/edo irakasgaien helburuak finkatzen direla, programazioak azaldu baino lehen; beraz, programazioak ez dira oinarrizko gaitasunen deribazio zuzenak:

- Jakintza-arlo edo irakasgaien helburuek gaika nahiz zehar-lerroen bidez jasotzen dituzte oinarrizko gaitasunak. Printzipio hori betetzea funtsezkoa da proposamena koherentea izan dadin.
- Curriculum gaitasunen inguruan antolatzeak eragin nabarmena izango du irakasteko eta ikasteko prozesua planifikatzeko eta abian jartzeko jardueretan, bai metodologiari dagokionez (eginkizunen aukeraketa, harreman motak, materialak, etab.), bai antolamenduari dagokionez.
- Oinarrizko gaitasunen proposamen hau garatzeko, programazioekiko lotura estutu behar da, curriculum antolatzeko bi modu horiek elkarrengana gerturatu eta bat egin dezaten.
- Oinarrizko gaitasunen lorpen-maila ebaluatzeko modua zehazteko urratsak eman behar dira, ikasleek Oinarrizko Hezkuntzako aldian izan ditzaketen premiak doitasunez ebaluatzeko.



- Orain arte azaldutako guztia aintzat hartuta, oinarrizko gaitasunei buruzko testu honi izaera dinamikoa aitortu behar diogu, ikusita, gainera, testuinguru aldagarri batean kokatzen dela; hala, idatzi hau Europar Batasunak finkatutako hezkuntza-gaitasunen egungo proposamenetara gerturatzeko ahalegintzat hartu behar da, eta ez testu itxi edo behin betikotzat.